

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2021eko eta 2023ko enplegu publikoaren eskaintzetako plazen deialdia eta hautaketarako berariazko oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko azaroaren 29ko erabaki bidez, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA. 164.104,75 euroko gastua baimentzea.

BIGARRENA. Onestea hautaketa prozesuaren deialdia eta berariazko oinarriak (II. eranskina) 2021 eta 2023 ekitaldietarako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotako aurrekontu plantillako plaza huts hauek betetzeko:

- Administrari laguntzaile plaza bat, Administrazio Orokorreko eskalakoa, laguntzaileen azpieskala, C2 taldea, txanda irekian.
- Berdintasun teknikari plaza bat, Administrazio Bereziko eskalakoa, teknikarien azpieskala, A2 taldea, txanda irekian.
- Ingeniari tekniko plaza bat, Administrazio Bereziko eskalakoa, teknikarien azpieskala, A2 taldea, txanda irekian.

HIRUGARRENA. Deialdi honen xede den hautaketa prozesuari Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 4an egindako bileran hartutako erabakian xedatutakoa aplikatuko zaio. Erabaki horren bidez, Amurrioko Udaleko funtzionarioak hautatzeko prozesuen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dira (2021eko abenduaren 29ko ALHAO, 146 zk.).

LAUGARRENA. Iragarkia eta deialdia arautzen duten oinarri orokorrak eta berariazkoak ALHAOn eta www.amurrio.eus udal web orrian argitaratzeko agintzea, baita deialdiaren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea ere; iragarki horren datak eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko balioko du.

I. ERANSKINA

Deialdi honen xede den hautaketa prozesuari Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 4an egindako bileran hartutako erabakian xedatutakoa aplikatuko zaio. Erabaki horren bidez, Amurrioko Udaleko funtzionarioak hautatzeko prozesuen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dira (2021eko abenduaren 29ko ALHAO, 146 zk.).

II. ERANSKINA**OINARRI ESPEZIFIKOAK****LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen helburua da 2021eko eta 2023ko ekitaldietarako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotako udal korporazioko funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik dauden lanpostuak jabetza araubidean hornitzea.

PLAZA	ZK.	AZPITALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	HE	DERRIGORREZKOA	TXANDA
Administrari laguntzailea	1	C2	Administrazio Orokorra	Laguntzaileak	2	Bai	Txanda irekia
Berdintasun teknikaria	1	A2	Administrazio Berezia	Teknikariak	3	Bai	Txanda irekia
Herrilanteko ingeniari teknikoa	1	A2	Administrazio Berezia	Teknikariak	3	Bai	Txanda irekia

BIGARRENA. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

Atxikitako eta gehitutako kasuan kasuko eranskinetan jaso dira Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario gisa hasteko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan ezarritakoa osatzen duten berariazko oinarriak; bertan ezarriko diren deialdia, hautaketa prozedurak edo sarbide sistemak arautuko dituzte.

1. AZTERKETA ESKUBIDEARENTASAK.

Eskabideak aurkezteko garaian indarrean dagoen zerga ordenantzak arautuko ditu.

Izangaiek deialdi bakoitzeko ordaindu beharko duten kuota eskuratu nahi duten lanpostuaren taldearen arabera ezarriko da, taula honi jarraiki:

A2 taldea: 20,00 euro.

C2 taldea: 10,00 euro.

Eskabidea egiteko unean langabezian dauden izangaiek ehuneko 50eko hobaria izango dute. Beraz, enplegu txartela aurkeztu beharko dute, langabezian daudela egiaztatzeko.

Azterketa eskubideak eskabideak aurkezteko epe barruan ordaindu beharko dira, Laboral Kutxa banketxean kopurua sartuz edo transferentzia eginez, Amurriko Udalaren izenean, kontu korrante honetan: ES29 3035 0089 18 0890020005. Kopurua sartzean izangaia izen-abizenak, NAN zenbakia eta lortu nahi duen plaza adierazi behar dira.

1. BERDINTASUNTEKNIKARI PLAZA.

Lehenengoa. Dei egiten den plaza.

Berdintasun teknikari plaza 1: 3. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun datarekin; A sailkapen taldea; A2 azpitaldea; Administrazio Bereziko eskala; teknikarien azpieskala.

Bigarrena. Betekizun bereziak.

Titulua: Gradu unibertsitate titulua edo baliokidea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko master ofiziala.

Hizkuntza eskakizuna: 3.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauek izango dira kideak:

Epaimahaiburua: saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Bokalak:

— Karrerako hiru funtzionario.

— HAAE-IVAPeko euskara teknikari bat, euskara probarako.

Idazkaria: udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa irekia.

A) Oposizio aldia.

1. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubetea gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubetea gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: euskara azterketa, nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Euskararen 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaiek salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin beharko, baita Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiek ere.

B) Lehiaketa aldia.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1. Lan esperientzia:

Izangaiek gehienez ere 3 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako eginkizunetan eta berdintasun teknikari kategoriarekin (A1 edo A2 taldea) Administrazio Publikoan lan kontratuaren bitartez edo funtzionario izendapenez emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,06 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako eginkizunetan eta berdintasun teknikari kategoriarekin (1. edo 2. kotizazio taldea) enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,03 puntu hileko.

2. Prestakuntza osagarria:

Izangaiek lortu nahi duten postuaren profilarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza osagarriatik gehienez ere 1,5 puntu lortu ahal izango dituzte atal honetan.

1. Parte hartzeko betekizun gisa eskatzen den titulazioaz gainera beste titulazio akademiko ofizial batzuk izatea baloratuko da, baita unibertsitateek edo unibertsitate eskolek emandako unibertsitate titulu propioak izatea ere.

Deitutako lanpostuaren eginkizunak betetzean zuzenean eta berariaz eragiten badute baloratuko dira.

— Eskatutako titulazioaz gainera postuarekin lotutako beste titulazio batzuk izatea, lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua (Goi mailako Hezkuntzako Kalifikazioen Espainiako Esparruko 2. maila): 0,50 puntu.

Unibertsitate ikasketa berberen ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen bada, soilik bat baloratuko da.

— Eskatzen denaz bestelako master edo graduondokoengatik, lanpostuarekin zerikusia badute, gehienez 0,75 puntu:

15 eta 29 kreditu artean edo 150 eta 290 ordu artean: 0,15 puntu.

30 eta 59 kreditu artean edo 300 eta 590 ordu artean: 0,25 puntu.

60 eta 120 kreditu artean edo 600 eta 1.200 ordu artean: 0,50 puntu.

1.200 ordu baino gehiagoko moduluak: 0,75 puntos.

2. Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikastaroak, 0,75 puntu gehienez.

Atal honetan epaimahaiak honako hauek soilik hartuko ditu kontuan: funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, HAEE-IVAP, beste administrazio eskola batzuk, eta abar), elkargo ofizialek, unibertsitate publiko zein pribatuek, izaera juridiko publikoa duten zentroek edo udalak berak antolatu edo emandako prestakuntza jarduerak, baldin eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademikoak lortzeko ikasketa planen parte den prestakuntza ez da baloratuko.

Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko ikastaro horien iraupena egiaztagirietan berariaz adierazten ez bada.

Gutxienez 10 orduko ikastaroak baloratuko dira, eta orduko 0,002 puntu emango dira.

Atal honetan, lan arriskuen prebentzioari buruzko berariazko prestakuntza ere baloratuko da; gutxienez 10 orduko ikastaroak baino ez dira baloratuko, eta 0,001 puntu emango dira orduko.

C) Praktikaldia.

Oposizio-lehiaketan puntu gehien lortu dituen izangaiak praktikan jardun beharko du aldi batez, sei hilabetez gehienez ere. Praktiketako jardunaldia hautaketa prozedurako beste fase bat izango da.

Fase honetan izendatuko den izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaio, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura etengabe egingo da praktikaldian zehar eta emaitzako kalifikazioa gai edo ez gai izango da; hautaketa prozesuko fase hori gainditzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiak plazaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrenaren jasotzen denak eragingo du izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena praktikaldia amaitutakoan.

Praktikaldia gainditzeko ez duten izangaiak, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan gai kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karre-rako funtzionario izendatzeko eduki dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaiak praktikaldia gainditu duen ala ez ebaziko du; hala, izendapen proposamena bidaliko du alkatetzara.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebartziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkatetza-lehendakaritzari.

BERDINTASUNTEKNIKARIA: GAI ZERRENDIA

1. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. Udal antolamendua. Oinarrizko organoak: alkatetza, alkateordeak, osoko bilkura eta gobernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20-26 artikulua; Toki erakundearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123, 124, 134, 135, 136, 137 artikulua).
3. Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioen araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46, 47, 51, 52 artikulua; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezkotzat hartzen diren testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 46-52 eta 54 artikulua).
4. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide kodea (14-54 artikulua). Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).
5. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Lanpostuak hornitzea eta mugikortasuna (78-84 artikulua). Administrazio egoerak (85-92 artikulua). Diziiplina araubidea (93-98 artikulua).
6. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Baimenak (48 eta 49 artikulua).
7. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina. Genero indarkeriagatiko, sexu indarkeriagatiko eta indarkeria terroristagatiko mugikortasuna (82 artikulua).
8. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Xedapen orokorrak (1-2 artikulua). Prozeduran interesdun direnak (3-12 artikulua). Jarduketa arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua).
9. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzen betekizunak (34-36 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-46 artikulua). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikulua).
10. Administrazio prozedura erkidea: interesdunaren eskubideak prozeduran. Prozeduraren faseak: aurretiazko jarduketak, behin-behineko neurriak, hasiera moduak, eskabidearen edukia, eskabidea zuzentzea eta hobetzea, erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa. Prozeduraren antolamendua. Instrukzioa (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53-83 artikulua).
11. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Sektore publikoko kontratuei buruzko xedapen orokorrak (28-43 artikulua).

12. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratuak prestatzea (115-130 artikulua).

13. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratuak adjudikatzea (131-171 artikulua).

14. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Hornidura kontratua eta zerbitzu kontratua egikaritzea (298-315 artikulua).

15. Datuen babesa. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuen babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

16. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoan baliabide elektronikoak erabiliz jarduteko arautegia onesten duena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio espediente elektronikoa (46-53 artikulua). Dokumentuak elektronikoki artxibatzea (54 eta 55 artikulua).

17. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (12-20 artikulua).

18. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. III kapitula. Eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua).

19. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. V kapitula. Langileen kontsulta eta parte hartzea (33-40 artikulua).

20. 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa, ITITULUA. Botere publikoen jarduna.

21. 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa, IITITULUA.

22. 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa, IIITITULUA.

23. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, ITITULUA.

24. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, IITITULUA.

25. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, IIITITULUKO I, II, III, IV, V ETA VI KAPITULUAK.

26. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, IIITITULUKO I, II, III, IV, V ETA VI KAPITULUAK.

27. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena, IVTITULUA.

28. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. Atariko titulua, I eta II.

29. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. IV titulua.

30. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. V titulua, I, II eta III kapituluak.

31. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. VI, VII eta VIII titulak.

32. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa. Prebentzioa eta detekzioa. II titulua.

33. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa. laguntza integral espezializatu eta irisgarriako eskubidea. IV titulua.

34. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa. Justizia eskuratu eta lortzea. VI titulua.

35. 213/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituenak.

36. 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituenak eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. I eta II kapituluak.

37. 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituenak eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. III eta IV kapituluak.

38. 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Ordainsari Berdintasunarena. I, II, III eta IV kapituluak.

39. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenak. II kapitulua.

40. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenak. III kapitulua.

41. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenak. IV kapitulua.

42. Diagnostikoak egiteko tresna. Genero adierazleak, enpresetan eta beste erakunde batzuetan. (Emakunde).

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/organizaciones_recursos/eu_material/adjuntos/metodologia_berdintasun_diagnostikoak_planak_enpresetan.pdf.

43. Enpresetan berdintasun planak eta diagnostikoak egiteko tresna, enpresetan eta beste erakunde batzuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/organizaciones_recursos/eu_material/adjuntos/metodologia_berdintasun_diagnostikoak_planak_enpresetan.pdf.

44. Tokiko berdintasun planak diseinatzea.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_recursos/eu_emakunde/adjuntos/guia_plan_local_igual_eu.pdf.

45. Lehendik dauden tokiko berdintasun planak egokitzea.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_recursos/eu_emakunde/adjuntos/guia_plan_local_igual_eu.pdf.

46. Tokiko berdintasun plana kudeatzea eta balioestea.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_recursos/eu_emakunde/adjuntos/guia_plan_local_igual_eu.pdf.

47. Tokiko berdintasun planetan helburuak eta ekintzak definitzea https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_recursos/eu_emakunde/adjuntos/guia_plan_local_igual_eu.pdf.

48. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen egoera enpleguaren esparruan. Generoko soldata arrakala. Eustat.

49. Generoak lurralde plangintzan eta hirigintzan duen eraginaren ebaluazioa. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/ms_lurralde_plangintza_hirigintza.pdf.

50. Genero ikuspegia txertatzea kontratu eta dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan. Emakunderen gida. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_clau_intro_00/es_def/adjuntos/A1_IncorporacionPerspectivaGenero_eu.pdf.

51. Kirolean emakumeen kontrako sexu jazarpena eta abusuak prebenitzea. Emakunderen gida. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/29.gida.kirola.pdf.

52. Etxeko tratatu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundearen arteko II. hitzarmena. Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/2_acuerdo_interinsti_eu.pdf.

53. Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskekin esku hartzea.

Emakunderen gida.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/Pautas_Interv_2019_eus.pdf.

54. 50 langiletik gorako enpresetan sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa aplikatzeko jarraibideak. Emakunde.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/sexu_jazarpena_eta_sexuan_oinarritutako_jazarpena_protokoloa_eu.pdf.

55. Emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruko ordenantza egitea. Emakunderen gida.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas2/eu_def/adjuntos/ordenanza_marco_eu.pdf.

56. Publizitate ez sexistarako dekalogo, Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf.

57. Komunikazio ez sexistarako dekalogo, Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf.

58. Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio tratamendurako dekalogo, Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf.

59. Arabako emakumeen elkarteak.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia_asoc_mujer_euskadi.pdf.

60. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabideak eta zerbitzuak.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_atencion/eu_def/adjuntos/genero_indarkeria_biktimak_baliabide_mapa.pdf.

2. ADMINISTRARI LAGUNTZAILE PLAZA.

Lehenengoa. Dei egiten den plaza.

Administrari laguntzaile plaza 1: 2. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun datarekin; C sailkapen taldea; C2 azpitaldea; Administrazio Orokorreko eskala; laguntzaileen azpieskala.

Txanda irekia, oposizio-lehiaketa bidez.

Bigarrena. Betekizun bereziak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2.

IT-Txartelak: Word aurreratua, Excel aurreratua, Access oinarritzkoa, Internet oinarritzkoa eta Outlook.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauek izango dira kideak:

Epaimahaiburua: saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Bokalak:

— Karrerako hiru funtzionario.

— HAAE-IVAPeko euskara teknikari bat, euskara probarako.

Idazkaria: udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa irekia.

A) Oposizio aldia.

1. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubetea gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubetea gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: euskara azterketa, nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa.

Bigarren hizkuntza eskakizuna daukaten izangaien euskara maila zehazteko azterketak egin beharko dira.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaia salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin beharko, baita Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaia ere.

B) Lehiaketa aldia.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1.a eta bakarra: lan esperientzia:

Izangaiek gehienez ere 4,5 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan eta kategorian, esaterako, administrari laguntzaile (C2 taldea) edo administrari kategorian (C1 taldea) Administrazio Publikoan lan kontratuaren bitartez, funtzionario izendapenez edo administrazio kontratuaren bidez emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,09 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan, esaterako, administrari laguntzaile (C2 taldea) edo administrari (C1 taldea) lanpostuetan, enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,045 puntu hileko.

C) Praktikaldia.

Oposizio-lehiaketa puntu gehien lortu dituen izangaia praktiketan jardun beharko du aldi batez, sei hilabetez gehienean ere. Praktiketako jardunaldia hautaketa prozedurako beste fase bat izango da.

Fase honetan izendatuko diren izangaia praktiketako funtzionario izendatuko dituzte; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaie, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura etengabe egingo da praktikaldian zehar eta emaitzako kalifikazioa gai edo ez gai izango da; hautaketa prozesuko fase hori gainditzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiek plazaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrenetan jasotzen denak eragingo du izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena praktikaldia amaitutakoan.

Praktikaldia gainditzen ez duten izangaia, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan gai kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karre-rako funtzionario izendatzeko eduki dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaia praktikaldia gainditu duen ala ez ebatziko du; hala, izendapen proposamena bidaliko du alkatetzara.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebatziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkatetza-lehendakariari.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA: GAI ZERRENDA

